

Martirietarako behin behineko bidera sartzeko dagoen bidegurutzeko sarrera-irteerak seguruago izateko, errepide tarte horretako seinalizazioa aldatu du Diputazioak. Hala, GI 631ko tarte horretan, ibilgailuak aurreratzeko debekua jarriko da bi norabideetan, Hierros Azkoitia paretik Aaldatxarren baserri ingururaino (400-500 metrotan).

Orain arte zegoen moduan arrisku dezente zegoela ikusi zuen Azkoitiko Udalak:

- 1) GI 631 ibilgailuak Zumarragaruntz eta Azkoitiruntz aurreratzeko eremua zutelako Hierros Azkoitia paretik Ipintza auzo sarreraraino
- 2) Martirietara auzora sarrerak egiteko Azkoitia aldetik errepidean geldirik egoten zirelako ibilgailuak
- 3) Martirieta auzotik GI 631 ra irteerak egiteko Zumarraga aldetik batipat abiadura eta ibilgailuak aurreratzen
- 4) Bisibilitate arazoak.

Horregatik proposatu zion Diputazioari seinalizazioa aldatzeko. Eskari hori aintzat hartuta hala egitea erabaki du orain Foru Aldundiak.